

Estereo bat zur eta egur



TESTUA ETA ARGAZKIA:

Jakoba Errekondo

jakoba@bizibartztea.eus

Suaren aldeko sukaldean, otorduak presatzeke garrari eta otordua egiteko berotasunari duten balio emateko sasoia da. Sua. Su egurrak sekula galdu behar ez zuen sona berreskuratzen ari da eta etorkizun oparoa du. Otordua prantatzeko ez, baina eraikinen berokuntzan gero eta ugariago ikusiko dugulakoan nago.

Zura eta egurra neurtzeko neurria da estereoa. Bai, zura bezala egurra. Zuhaitzean ikusten baitute batzuek zura bezala egurra. Nafarroako herri txiki batean ederki ikasi nuen lezio hori, Sakanan uste dut. Materialerako egokia den zatia da zura, eta materialerako balio ez duena egurra. Materiala zurajetarako eta arotz eta zurgin lanetan erabiliko da. Egurra aldiz, hesoletarako, kirtenetarako, sutarako eta abar. Su bakoitzak bere trikimailuak eta katramilak ditu. Ez dira gauza bera ogi labea berotu, kariobian kareharria erre, txondorrean egurra egosi, sagarrak erretzeko edo lapikokoa bor-bor jartzeko ekonomika sutzea, zikiroa edo danbolinkada gaztaina sutan erretzea edo abaritzaren (*Quercus coccifera*) iduriaren bero bildua.



Estereoari helduta, enborrak, adakiak eta adarrak bere gordinean neurtzeko neurria da. Zuhaitzak eta arbolak eraisten direnean, bere horretan, bere borobilean osorik gihar, gizen eta azal, ahalik eta trinkoen pilatu eta metro kuboak betetzen duena, horixe da estereoa. Estereo izena grekoko στερεός hitzetik dator, eta “trinkoa” adierazten du. Egurra eta zura asko landu gabe dabiltzan lekuetan erabiltzen da estereoa: mendian, basoan, kamioie-

tan, paper fabrikan, zerrategian... Gero landuko da: azala zuritu, kostera kendu, oholdu eta habeak egin. Horiek baliatuko dituzten aroztegian edo zurgindegian edo eraikuntzan estereo hitza ez dugu berehalakoan entzungo, zer esanik ez ebanisterian... Zenbat eta finagoa zura, orduan eta urrunago estereoa, finezia eta trinkotasuna bateraezinak balira bezala... Horrenatik ez ote da Nazioarteko Unitate Sistemian edo Sistema Metrikoan onartua? ■

IRAKURLEAK ✉ GALDEZKA

Galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.eus helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Kaixo, Landareak lantzen gida-liburua jaso berri dut eta zalantza bat daukat (oraindik): ez dut ulertzen zer den ilzaharra. Agur bat eta eskerririk asko.

Xabi Mercero (Basaburua)

Kaixo Xabi. Landareak lantzen gida-liburuaren azalaren hegalean edo barruko solapan argitzen du. Ilzaharra: ilargi

betea ikusten dugunetik txikitzen ari den artean ilzaharra da, ilargi berrira arte. Hau da, ilargi betetik ilargi berrirako tartea, gutxi gorabehera hamabostaldi bat.

Ilberriaren alderantzizkoa da. Ilberria handitzen ikusten dugun hamabostaldia da.

Euskaraz ilzaharra eta ilondokoa esaten zaio, ilargi betearen ondorengo fasea adierazten dute biek. Gaztelaraz *luna decreciente* eta frantsesez *lune décroissante* deitzen dute.

